

Haridun lanpara



materiala

- globo bat
- artilea edo algodoizko haria
- kola txuria
- ur beroa
- artaziak
- botila tapoi bat
- zeloa
- katilu formako bi ontzi

eskulana



azalpena



Haridun lanpara egiteko, lehenengo, globoa puztu behar dugu. Forma ahalik eta borobilena ematen saiatuko gara.

Ondoren, katilu gainean jarriko dugu geldi mantentzeko eta eskulana ahalik eta xamurren egiteko, baita puxikaren beheko aldean zuloa gelditzeko ere. Bukaeran hortik bonbila sartuko dugu, beraz, logelako bonbilaren neurria begiratu zuloa tamaina hortakoa egiteko.

Behin katiluan jarrita, puxikaren goikaldean, botelaren tapoila zeloz pegatuko dugu, erdian.

Orain artilea edo hariarekin lanean hasiko gara! Honetarako, beste katilu batean kola txuria botako dugu. Ondoren, ur beroa gehituko diogu kolari eta dena nahastuko dugu.

Momentu honetarako hobe da mahai gaina txukun eta eroso izatea lana errazago egiteko.

Haria nahasketatik pasatzen hasiko gara, kola ondo xurgatuz. Gero, globoan jarri dugun tapoian buelta pare bat emango dizkiogu.

Eta horrela pausoka pausoka, haria kolatik pasatu eta globoan bueltaka beherutz eramango dugu, nahi dugun eran bueltak ematen globoa ia tapatu arte.



Behin bukatua, lehortzen utziko dugu, 20 minutu gutxigora behera.

Ondoren, globoa apurtuko dugu puntadun zerbaitekin, adibidez, artaziekin.

Eskulana egina dago!

Orain gure logelako lanparan jarri. Ez badaukagu puxikaren goikaldean, tapoia jarri dugun tokian, soka bat jarri al diogu eta dekorazio moduan eskegi dezakegu.

Polita geratzen da eta errez egiten da. Animatu parte hartzera!!

